

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Jiménez lehendakariordeak bart sute baten ondorioz kiskalita geratu zen Arguedasko Tortillas Palacios-en instalazioak bisitatu ditu

Lehendakaritzako kontseilariak enpresari eta bertako langileei bere elkartasuna erakutsi die, eta gertaera "ezbehar oso garrantzitsu"-tzat jo du

Jueves, 31 de mayo de 2012

Nafarroako Gobernuko lehenengo lehendakariorde Roberto Jiménez gaur goizean Arguedasera joan da bart Tortillas Placios SL (lehenengo Floristán) enpresa erraustu zuen sutearen kalteen balantzearen berri izateko.

Jiménez-ek adierazi du fabrika "erabateko ezbehar-egoeran geratu dela, guztiz kiskalita", eta gertaera "ezbehar oso garrantzitsu"-tzat

jo du jabeentzat, langileentzat (80 eta 100 artean, ekoizpenaren arabera) eta baita Arguedas eta Valtierra udalerrietzat ere. Biktimarik egon ez izana ere azpimarratu du.

Bart ere jendea koordinatzeko lanetan parte hartzera joana zen Jiménez lehendakariordeak, bere elkartasuna erakutsi die enpresari eta langileei, eta Tortillas Palacios enpresako zuzendaritzaren jokabidea azpimarratu du; izan ere, bart jada aurrera nola egin pentsatzen ari zen eta beren bezeroei nola erantzun.

"Jokabide horrek Nafarroako Gobernuaren miresmena eta laguntza merezi du", defendatu du lehendakariordeak. Lehendakariordearekin batera, fabrika bisitatu dute Nafarroako Larrialdi Agentziako zuzendarigereente José María Vázquez-ek, udalerriko alkate Fernando Mendoza-k eta enpresako kontseilari Alfredo Floristán-ek. Enpresa Cárnicas Floristán eta Palacios Alimentación-ena da.



Jiménez lehendakariordea, NLako zuzendaria, Arguedasko alkatea eta enpresako kontseilaria, kiskalitako nabearen alboan.

Olio termikoko tanga

Jiménez

lehendakariordeak azaldu duenez, sutea olio termikoko tanga bat zegoen nabeko bazter batean piztu zen. Une

horretan fabrikan garbiketa-talde bat zegoen (lau langile), ekoizpena goiz eta arratsaldeko txandetan egiten baita.

112-SOS Navarra larrialdietarako koordinazio-zentroak abisua 23:00ak baino zertxobait lehenago jaso zuen. Sua berehala zabaldu zen fabrika guztian haizearen, nabeko egituraren nahiz isolatzaileen laguntzarekin. Nafarroako Larrialdi Agentziak 27 suhiltzaile eta hamar ibilgailu bidali zituen Peralta, Tafalla eta Tuterako eskualdetako suhiltzaile-etxetatik eta baita Cordovillako (Galar) suhiltzaile-etxe nagusitik ere. Bi anbulantzia ere bidali ziren, bat medikalizatua eta baita Udaltzaingoa eta Guardia Zibilaren agenteak ere; azken horrek hartu du ikerketaren ardura.

Gaur goizean goizetik Cordovilla, Tuter eta Tafallako suhiltzaile-etxetako 14 suhiltzailez osatutako talde bat dago ezbeharrak izan zen lekuan errematatzeko lanak egiten eta nabeko hondakinak hozten; izan ere, estalduraren azpian, eraitsia, sukoiak diren materialak daude.



Tortillas Palacios-en nabea kiskalita geratu da erabat.

Galería de fotos



Fabrika, kiskalita



Suhiltzaileak sua itzaltzeko lanetan.



Suhiltzaileak Tortillas Palacios SL enpresan izandako sutea itzaltzen.